

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDALA**Mugikortasuneko Administrazio Atala**

Donostiako udalerrian bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoaren araudiaren lehen aldaketaren behin betiko onarpena.

Udalbatzak, 2017ko azaroaren 22ko bilkuran, Donostiako Udalerrian bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoaren araudiaren lehen aldaketaren hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Jendaurreko epea bukatuta ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu (225 zkidun aldizkari iragarkia, 2017ko azaroaren 24koa), ondorioz Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da.

Aipatu 7/1985 Legearen 70.2. artikuluari jarraiki, ondoren argitaratzen da:

Onartzea «Donostiako udalerrian bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoaren araudia»ren aldaketa (lehen aldaketa). Horrela, ondoren aipatzen diren artikuluetan «bost» (edo «5») aipamena «sei» aipamenarekin ordeztuko da:

- 8. artikulua, 9. paragrafoa.
- 20. artikulua.
- 42.1. 2. paragrafoa.

Indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro baita.

Akordio hauek bide administratiboa agortzen dute, beraz, Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46 artikuluei jarraiki, ados ez dagoenak bi hilabete ditu errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen honen hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Donostia, 2018ko urtarrilaren 29a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Udalbatzarraren idazkari nagusia. (1059)

AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA**Sección Administrativa de Movilidad**

Aprobación definitiva de la primera modificación del reglamento de servicio público de transporte urbano regular de personas viajeras.

El excelentísimo Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 22 de noviembre de 2017, acordó aprobar inicialmente la primera modificación del Reglamento de Servicio Público de Transporte Urbano regular de personas viajeras.

Transcurrido el plazo de exposición pública (anuncio en boletín n.º 225 del 24 de noviembre de 2017) no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 reguladora de las bases del régimen local, debe entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 70.2. de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a su publicación:

Aprobar la modificación (primera), del «Reglamento de servicio público de transporte urbano regular de personas viajeras por carretera en el término municipal de San Sebastián, mediante la sustitución de las menciones «cinco» (ó «5») por «seis» en los siguientes artículos:

- Artículo 8, noveno párrafo.
- Artículo 20.
- 42.1. 2.º párrafo.

La entrada en vigor se producirá al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, por haber transcurrido ya el plazo previsto en el artículo 65.2. de la Ley, de 2 de abril, 7/1985 reguladora de las bases del régimen local.

Estos acuerdos ponen fin a la vía administrativa de manera que, conforme a las previsiones de los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa podrá ser impugnado directamente ante la sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de 2 meses.

Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

San Sebastián, a 29 de enero de 2018.—El secretario general del Pleno, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga. (1059)